# BARAÑAIN

Udal informazioaren aldizkaria
Boletín informativo municipal
nº76 2016ko maiatza mayo 2016
DL NA 1782-2012



## INBERTSIOAK
## INVERSIONES

# AUDITORIO BARAÑAIN AUDITORIOA
## AURRERA PAUSOA UN PASO ADELANTE



La alcaldesa, Oihaneder Indakoetxea, y el presidente del Auditorio, Txuma Huarte, junto al equipo del espacio escénico: Felipe Pérez, Pilartxo Baleztena, Bakarne Atxukarro, Mikel Artxanko, Nora Bengoetxea y Marian Yárnoz.



## JARDUERA FISIKOA
## ACTIVIDAD FÍSICA

# Nueva etapa en Auditorio Barañain Auditorioa Garai berria

**Hausnarketa prozesua jarri du abian Barañain Auditorioak. Espezializazioa xede izanda estrategia ildoak zein izanen diren definitzea da gakoa eta modu horretan gainontzekoengandik desberdina den eskaintza egitea. Udalarekin elkarlanean, Nafarroako Gobernua eta sektoreko profesionalen lan taldea ari da prozesua aurrera eramaten. Garai berrirako mugarri nagusiak dantza, gizarteratzea, haur eta gazteen esparrua eta Barañain dira.**

**Auditorio Barañain Auditorioa ha iniciado una fase de reflexión con el objetivo de definir una serie de líneas estratégicas encaminadas a una especialización que le permita diferenciarse. Este proceso lo está llevando a cabo en colaboración con el Ayuntamiento, el Gobierno de Navarra y profesionales del sector. Los cuatro pilares fundamentales de esta nueva etapa serán la danza, la inclusión, el ámbito infanto-juvenil y Barañain.**

## Gizarteratzea Inclusión

Lan ildo hau 'Crecer con arte' (Artez hezi) proiektuarekin ari dira gauzatzen. Bederatzi ikastetxetako 150 ikasleren parte hartzearekin ari dira lantzen.

**Xedeak:**

- Kultura sustatzea eta sarbidea erraztea bereziki zailtasun edo muga fisikoak, sozialak, psikikoak edo ekonomikoak dituztenei.
- Artea sustatzea eta kultura, tresna terapeutiko gisa zein gizarteratzeko erabili ahal izatea gazteentzat eta emakumeentzat mesedegarri eginez.

Esta línea de trabajo se está desarrollando ya a través del proyecto “Crecer con Arte”, que este año cuenta con la participación de unos 150 alumnos de nueve centros diferentes.

**Objetivos:**

- Potenciar el acceso a la cultura, especialmente a las personas con dificultades físicas, sociales, psíquicas y económicas.
- Impulsar el arte y la cultura como herramientas terapéuticas y de inclusión, favoreciendo principalmente a jóvenes y mujeres.

## Haur eta gazteen esparrua Infanto-juvenil



Una imagen del concierto escolar ‘Tubos y tubas’.

Ez da lan ildo berria. Barañain Auditorioak badu programazioaren barruan ikastetxeekin elkarlanean egiten diren kontzertuak eta familiekin egiten direnak ere. Urtero 6.000 ikasle izaten dira ekimenen batekin Auditorioan. Horren aurretik noski irakasleek prestatu egiten dituzte ikasleak Auditorioan eginen dutenaren inguruan. Etorkizunean eskaintza hori zabaltzea da erronka eta familiarteko ekintzak are gehiago sustatzea ere bada xedeetako bat. Hala, aurten hasi zaizkie proposamenak egiten: familiei dantza ikuskizunen inguruko gidak helarazi zaizkie eta horien bidez arte eszenikoetan informazioa eskuratzeaz gainera baloreetan ere lan egiteko aukera eman diete. Modu horretan, Auditorioak kulturaren eta hezkuntzaren artean bitartekari izatea lortu nahi du eta bide batez, parte hartzean fokua jartzea.

**Xedeak:**

- Bitartekari izatea ikastetxeekin tresnak emanez arte eszenikoetan ikasleak garatu ahal izateko.
- Familiarteko esparrua lantzea eta arte eszenikoak sustatzea eremu horietan. Baita gazteen artean ere.
- Kultura gozagarria dela erakustea, bai ikusle gisa zein aktiboki parte hartuz.

No se trata de una línea nueva, ya que el Auditorio alberga conciertos escolares y familiares casi desde sus inicios. Cada año pasan por su patio de butacas cerca de 6.000 escolares, que previamente han trabajado en sus centros educativos las guías didácticas que se les proponen. En un futuro, quiere potenciar esta oferta y hacer hincapié, además, en la dirigida al público familiar. En este sentido, esta temporada ha comenzado a proponer a las familias diferentes espectáculos de danza con sus correspondientes guías didácticas, que les permiten trabajar no sólo las artes escénicas en sí, sino muchos otros valores. De esta forma, el Auditorio quiere convertirse en un espacio cultural de mediación educativa mediante propuestas que fomentan la participación.

**Objetivos:**

- Ser mediador con los centros educativos dotándoles de herramientas de artes escénicas que favorecen el desarrollo de la persona.
- Impulso de las artes escénicas para la familia y la juventud.
- Educar en el disfrute de la cultura, tanto como espectadores como partes activas de la misma.

# Dantza Danza

Eskenatokiak dituen ezaugarriei esker dantzarako espazio egokienak ditu Auditorioak Nafarroa mailan. Nafarroako Gobernuak iradoki dituen dantza ikuskizun ugari hartu ditu Auditorioak eta Iruñerriko dantza eskola askoren emanaldiak ere izan dira bertan. 'Asociacion por la Danza en Navarra-Haizea' (Dantzaren aldeko Elkartea-Haizea) taldearen sortzaile izan da Barañain Auditorioa eta lehendakariordetza du uneotan hartuta.
Ildo estrategiko honekin, urteotan dantzarekin izandako hartu-emana indartzea izanen da helburuetako bat eta diziplina horri babesa eskaintzea ere bai.

**Xedeak:**

- Sektorea indartzeko bitartekaritza lanak egitea sorkuntzaren eta ikerketaren arloetan. Profesionalekin eta eragileekin elkarlanean aritzea.
- Dantza eremu desberdinak indartzea eta sustatzeko lan egitea. Ikusleak erakartzea.



Las características de su escenario le han permitido al Auditorio ser uno de los mejores espacios para la danza de la Comunidad foral. Durante años, ha acogido actuaciones enmarcadas en los programas propuestos por el Gobierno de Navarra, así como de diferentes actuaciones organizadas por distintas escuelas de danza de la Comarca. Además, Auditorio Barañain Auditorioa fue fundador de la "Asociación por la Danza en Navarra - Haizea" y en estos momentos ostenta su vicepresidencia.
Con esta línea estratégica, dará continuidad a esta trayectoria ligada a la danza y continuará mostrando su apoyo a una disciplina que ha recibido un escaso respaldo en los últimos años.

**Objetivos:**

- Fomentar la mediación para la creación y la investigación con el sector profesional y los distintos agentes involucrados.
- Reforzar la divulgación de las diversas manifestaciones de la danza orientada a la creación de públicos.



**LEHENDAKARITZA**

Jesus Maria Huarte Arregi Participando en Barañain-Barañainen Parte Hartu alderdiaren izenean zinegotzia da Udalean joan den apirilaren 28tik. Ordutik, Barañain Auditorioa Fundazioko Patronatuko Batzarreko presidentea ere bada.

**PRESIDENCIA**

Jesús María Huarte Arregui tomó posesión como concejal de Participando en Barañáin en el Ayuntamiento el pasado 28 de abril. Desde entonces es también el nuevo presidente de la Junta del Patronato de la Fundación Auditorio Barañáin.

# Barañain Barañáin



Celebración de los 25 años de Harizti.

Garai berri hauetan Barañain Auditorioak ez du ahazten herria bera. Bizilagunengana kalitatezko programazioa iristen dela eta kulturalki herriak dituen beharrak asetzea lortu nahi du Auditorioak. Horretarako konpromisoa hartu du. Herritarrengana iritsi nahi du baina baita kolektibo eta eragileengana ere. Elkargune izan nahi du eta bizilagunen parte hartzea izanen den eremu bilakatu. Hori lortu ahal izateko diagnostiko bat eginen da. Ezagutu beharra dago zein den herriaren ehun soziokulturala, iritziak jaso eta elkarlanean aritu.

**Xedeak:**

- Indartu eta zabaldu Udalarekin dauden harremanak. Sail desberdinekin aritu.
- Elkarlanerako formulak diseinatu kolektibo soziokulturalekin aritzeko eta parte hartzea sustatu ezein proiektu komunak garatzeko.

En esta nueva andadura, Auditorio Barañain Auditorioa no se olvida de la propia localidad. Quiere adquirir el compromiso de hacer llegar a sus vecinos y vecinas una programación de calidad, así como de responder a las necesidades culturales de colectivos y otros agentes culturales. De este modo, quiere ser un lugar de encuentro y de participación para la ciudadanía. Para lograrlo, el propósito es emplear distintas herramientas como realizar un diagnóstico del tejido sociocultural de la localidad, crear mesas de opinión o impulsar el trabajo colaborativo y la participación.

**Objetivos:**

- Fortalecer y ampliar la relación que ya se mantiene con el Ayuntamiento y sus distintas áreas.
- Diseñar fórmulas de colaboración con los diferentes colectivos socioculturales para favorecer la participación y desarrollar proyectos conjuntos.



# Kirolarekin bat egiten duen herria

# Una localidad deportiva

Egunerokoan kirolak garrantzia handia du Barañainen. Harrobi izan da eta bada egun ere bizilagun askorentzat. Hala, kirol talde ugari ari dira lehian diziplina desberdinetan. Kirol sailak eskaintzen dituen aukerekin bi mila herritarrek eman dute izena baten batean pasa den ikasturtean. Kalera irten gara, galdezka: Kirolik egiten duzu? Fisikoki egiten duzu ariketarik? Gomendagarria iruditzen zaizu aktibo egotea? Barañaingo kirol eskaintza nahikoa iruditzen zaizu?

El deporte está muy presente en la vida de Barañáin. El municipio ha sido y es cantera de destacados deportistas, cuenta con numerosos equipos que compiten en distintas disciplinas y, solo en la oferta que diseña cada año el área de Deportes, este curso se han registrado cerca de dos mil inscripciones. Hemos salido a la calle para preguntar: ¿Practicas algún deporte? ¿Haces algún tipo de actividad física? ¿Crees que es recomendable mantenerse activo? ¿Te parece suficiente la oferta deportiva existente en Barañáin?

## Kirol-eskolen XX.Erakustaldia

### XX Exhibición de las Escuelas Deportivas

2016ko Ekainak 1, Asteazkena
Barañaingo Kiroldegian 16:00 etatik 20:00 etara

**Udal-kiroldegiko barruko pista**
Soinketa artistikoa 17:30 etatik 18:00 etara; Karate 18:30 etatik 19:00 etara; Soinketa erritmikoa 19:30 etatik 20:00 etara
**Udal-kiroldegiko kanpoaldeko pistetan**
Irristaketa 17:30 etatik 18:00 etara; Patin-hockey 18:30 etatik 19:00 etara
**Udal-kiroldegiko ispiluen aretoan**
Psikomotrizitatea ingelesez 16:00 etatik 17:00 etara. Ate irekitako klasea (guraso eta seme-alaben artekoa)
**Alboko pista (kanpoaldean)**
Atletismo 18:15 etatik 18:45 etara

Miércoles 1 de junio de 2016
Polideportivo de Barañain 16:00h a 20:00h

**Polideportivo municipal pista interior**
Gimnasia deportiva 17:30 -18:00 h; Karate 18:30 -19:00 h; Gimnasia rítmica 19:30 -20:00 h
**Polideportivo municipal pistas exteriores**
Patinaje 17:30 -18:00 h;
Hockey sobre patines 18:30 -19:00 h
**Polideportivo municipal (sala espejos)**
Psicomotricidad inglés 16:00 -17:00 h. Puertas abiertas (clase conjunta padres y niño/as).
**Pista lateral (exterior)**
Atletismo 18:15 -18:45 h











## Kirolaren eta hirugarren adinaki pertsonen XII eguna

### XII Día del Deporte y la Tercera Edad

2016ko Maiatzak 31, Asteartea
Barañaingo Kiroldegian 10:30 etatik 11:45 etara

**10:30-10:35 Aurkezpena eta ongi-etorri**
**10:35-10:50 Beroketa** Ana López / Marisol García
**10:50-11:15 Dantza egiteko ordua!**
Irakasle gonbidatua
**11:15-11:40 Yoga** Pablo Etayo / Carmen Zoroquian
**11:40-11:45 Agurra izango da**
* Jardueretara edozein lagun etor daiteke, ez du izan behar kurtxoan zehar egindako jarduera bera.

Martes 31 de mayo de 2016
Polideportivo de Barañain 10:30h a 11:45h

**10:30-10:35 Presentación y bienvenida**
**10:35-10:50 Calentamiento** Ana López / Marisol García
**10:50-11:15 ¡A bailar!** Profesor/a invitado/a
**11:15-11:40 Yoga** Pablo Etayo / Carmen Zoroquian
**11:40-11:45 Despedida**
* A las actividades podrá acudir cualquier persona, independientemente de la actividad a la que haya asistido durante el curso.



**José Luis Gómez** El deporte está muy presente en mi vida. He jugado al fútbol y, desde 1982, soy entrenador de nivel 3. Además, estuve becado por la Federación Valenciana de Fútbol y amplié mi formación en Holanda en las escuelas del Ajax, del PSV y del Hamburgo. Actualmente entreno a un equipo de fútbol 8 del Atarrabia y suelo practicar ciclismo, frontenis y fútbol sala. De vez en cuando, también juego a pelota y hago footing. Soy un convencido de los múltiples beneficios del deporte.



**Raúl Arbizu** Procuro salir a correr dos o tres días a la semana. Empecé hace un año y todo surgió de un grupo de padres del colegio, pero lo hacemos en plan tranquilo. En mi caso, he ido muy poco a poco y ahora ya corro 8 o 10 kilómetros. El próximo día 28 participaremos en la carrera solidaria Barañáin-Tsunza. Antes competía en moto de monte y también solía salir en bici. El día que no salgo a correr procuro darme una vuelta en bici.



**Xabier Etxeberria** Beti saiatu izan naiz kirola egiten. Korrika egitera irteten naiz, bizikletaz ibiltzera eta bereziki udan igeri egitera joaten naiz. Gustuko dudalako egiten dut, besterik gabe. Batzuetan taldean irteten gara korrika egitera baina ordutegiak direla-eta bakarrik ere atera behar izaten dute. Kirola egitea positiboa da. Iruditzen zait garrantzitsua dela txikitatik kirolarekin lotutako ekintzaren bat egitea, telebista pantailatik aldentzea. Lagunak kirol instalazioetan padel eremuren bat gehiago izatea ez legoke gaizki.



**Amaia Álvarez** Kirola ez dut gehiegi praktikatzen.
Hala ere, ibiltzera joaten naiz eta hori bai, flexioak sarri egiten ditut. Txikitan igeri ere egiten nuen. Nik ere kirola egiteko parke bat fa ltan botatzen dut bertan, kirola egiteko erosoak dira eta ez litzatek e gaizki egongo horietako parke bat bertan ja rriko balute.



**Roberto Valencia** Siempre me ha gustado hacer deporte y trato de sacar tiempo para practicarlo. Suelo correr y andar en bici varios días a la semana. Considero que es importante hacer ejercicio, pero siempre en su justa medida, sin llegar a obsesionarse con ello. Además, creo que en Barañáin tenemos una oferta deportiva suficiente.



**Iván Viana** Astean behin baino gehiagotan irteten naiz korrika egitera eta uda hurbildu ahala bizikletarekin irtengo naiz maizago. Gaztetan kirol asko egiten nuen, gero, denboraldi batez gutxi egiteko aukera izan nuen eta orain berriro ekin diot kirola praktikatzeari. Hobeki sentitu nahi nuen eta kirolak lagundu dit 17 kilo jaisten. Hasieran gogorra da baina gero baditu norberarengan onura asko. Alabak 5 urte ditu eta heldu den urtean patinajean eman nahi du izena. Kirola egitea onuragarria da.



**María Ibarrola** Los martes voy al polideportivo a clases de zumba y los jueves, a aeróbic. Antes hacía únicamente aeróbic pero este año han modificado algo la oferta ampliando la de zumba y combino las dos cosas. Me gusta esa mezcla de deporte y música que ofrecen estas dos actividades y lo disfruto mucho. La programación de cursos es amplia y económica. Trato de ser constante y de no faltar a las clases.



**Sonia Embid** Antes solía ir al gimnasio, pero ahora me resulta complicado por temas laborales. Así que los fines de semana intento compensar saliendo a andar o a dar una vuelta en bici con los hijos. El deporte te ayuda a desconectar del día a día y a desahogarte un poco. Lo considero muy positivo y para los críos también es importante. En Barañáin tenemos una oferta deportiva amplia y las escuelas municipales, por ejemplo, son muy asequibles.



**Edurne Campo** Garai batean areto futbolean aritzen nintzen, gimnasiora joan eta korrika egitera irteten nintzen. Orain ez dut hainbeste denborarik. Alabak patinajea egiten du eta igeriketa ere bai. Kirola egin dezan ongi dago. Lagunak kiroldegiko abonua dut eta ongi legoke, bere garaian iragarri bezala, padel eremu gehiago izatea. Uste dut eskaria badela horretarako, izan ere, zaila da uneotan dagoen padel eremua hutsik aurkitzea.



**Jesús Sainz** Kirola egitea gustuko dut.
Maiz aritzen naiz bizikletarekin alde batetik bestera. Horrez gain ere, men dian ibiltzea gustuko dudan beste kirol bat da.
Gazteagoa nintzenean igerilekura ere joaten nintzen igeri pixka bat egitera.
Orain ordea, Barañainen kirola egiteko parke bat faltan botatzen dut. O ndo egongo litzateke, gehien bat gure adineko jendearentzat.

# Herria hobetzeko, inbertsioak
# Inversiones para mejorar el pueblo

Inbertsio plana diseinatu du Udalak eta plan horri ekonomikoki aurre egiteko aurrekontuak moldatu behar izan dituzte inbertsioek duten tamaina eta garrantziagatik. Apirileko osoko bilkuran onartu zuten aurrekontuaren moldaketa eta datozen hilabeteetan ekinen dio inbertsio plana abian jartzeari. Orrialde hauetan inbertsio horien sail bat baino ez da ageri, zehazki, Udalari dagozkion gastuenak. Izan ere, badira beste zenbait inbertsio eragileen bidez edo Lagunak kiroldegiko entitateen bidez eginen direnak.

**El Ayuntamiento ha diseñado un plan de inversiones que, debido a su envergadura, exigía una modificación presupuestaria para afrontarlo. Esta modificación fue aprobada en el pleno del pasado mes de abril y, en los próximos meses, el consistorio comenzará a ejecutar las actuaciones establecidas. En estas páginas se detallan únicamente las cifras que corresponden al gasto del Ayuntamiento, ya que algunas de las propuestas que se van a realizar también conllevan inversiones por parte de otros agentes o entidades como Lagunak.**

Aurreikusitako inbertsio multzo bat ezinbestekoa da egitea. Azpiegitura publikoei dagokie eta irisgarritasunarekin loturiko hobekuntzak egitean datza. Legea betetzeko beharrezkoa den lana izanen da hori, beraz. Horrez gain, obra batzuetan egindako akatsak ere konponduko dituzte. Udal gobernua osatzen duten alderdien ustez, aurreko legealdiek egin beharreko lanak dira:

- 1. Alaitz institutuko kanpoko zurgintza instalazioaren aldaketa (49.000 euro)
- 2. Herriko Kiroldegia araudiaren arabera egokitzea (49.400 euro)
- 3. Lagunak kiroldegian tentsio-baxuko linea ezartzea (94.700 euro)
- 4. Lagunak kiroldegiko estalkia konpontzea (25.500 euro)
- 5. Lagunak kiroldegiko patinaje eremuko estalkia konpontzea (36.250 euro)
- 6. Zuntz optikoaren bidez udalarenak diren eraikinak konektatzea (45.800 euro)
- 7. Los Sauces-Sahats ikastetxeko komunak moldatzea (35.750 euro)
- 8. Bakearen plaza-Nelson Mandelan dagoen jubilatuen elkarteko komunak ontzea (26.500 euro)
- 9. Alaitz ikastetxeko jolastoki estaliko zutabe metalikoak babestea (9.000 euro)








Parte de las intervenciones previstas son obligatorias porque responden a la necesidad de adaptar las instalaciones municipales a la normativa legal actual y de reparar defectos observados en la ejecución de algunas obras. Desde el equipo de gobierno se considera que deberían haberse llevado a cabo en legislaturas anteriores:

- 1. Sustitución de carpintería exterior del colegio Alaitz (49.000 euros)
- 2. Adecuación del Polideportivo Municipal a la normativa (49.400 euros)
- 3. Instalación de línea de baja tensión en Lagunak (94.700 euros)
- 4. Arreglo de la cubierta del polideportivo de Lagunak (25.500 euros)
- 5. Arreglo de la cubierta del patinódromo de Lagunak (36.250 euros)
- 6. Conexión por fibra óptica en edificios municipales (45.800 euros)
- 7. Adecuación de los baños del colegio Los Sauces-Sahats (35.750 euros)
- 8. Remodelación de los baños del club de jubilados de la plaza de la Paz-Nelson Mandela (26.500 euros)
- 9. Protección de los pilares metálicos del patio cubierto del colegio Alaitz (9.000 euros)





EH Bildu, I-E/Equo, Participando en Barañain-Barañainen Parte Hartu eta Geroa Bairen arteko akordioak jasotzen duen bestea da, beharrezkoa dela udalarenak diren zenbait eraikin hobetzea, hala, kolektiboek erabilgarri izanen dituzte ekimen kulturalak edo kirol arlokoak egin ditzaten. Hori horrela, udalarenak diren zenbait lokal erabilgarri jarriko dituzte herritarrentzat. Helburua, parte hartzea sustatzea eta kolektiboen zein eragileen lana babestea izanen da. Horretarako beharrezkoa da zenbait espazio moldatzea:

- 1. Elikagaiak Banatzen dituen Gune Solidarioarentzat egokitzea lokala (80.350 euro)
- 2. Lagunak kiroldegiko erretegiaren eremua hobetzea (85.250 euro)
- 3. Udaletxeko plazaren solairuartekoa egokitzea (192.800 euro)
- 4. Udaltzaingoaren garabien eremua egokitzea (4.900 euro)

El acuerdo programático firmado por EH Bildu, I-E/Equo, Participando en Barañáin y Geroa Bai recogía la necesidad de acondicionar locales municipales con el objetivo de que los colectivos desarrollen su actividad cultural o social en el pueblo. Por este motivo, desde una perspectiva social y de fomento del asociacionismo participativo, el Ayuntamiento habilitará locales municipales con este fin. A esta iniciativa se suma también la necesidad de acometer y mejorar nuevos espacios:

- 1. Adecuación de un local para el Centro Solidario de Distribución de Alimentos (80.350 euros)
- 2. Reforma de la zona de asadores de Lagunak (85.250 euros)
- 3. Adecuación parcial de las entreplantas de la plaza Consistorial (192.800 euros)
- 4. Adecuación local de la grúa de Policía Municipal (4.900 euros)

## ZURE PLAZA HOBETU MEJORA TU PLAZA

Datozen hilabeteetan eginen diren lanen artean badira txikiagoak diren beste zenbait ere: bizikletentzako bideak ontzea, atletismo pistak hobetzea, komun publikoak eraikitzea eta herritarrek eginen dituzten gainontzeko proposamenak 'Mejora tu plaza'-'Zure plaza hobetu' izeneko prozesuaren bidez. Castaños plazako, Rio Arga plazako eta Los Olmos plazako bizilagunekin izandako bileren ondoren, hitzordu gehiago aurreikusi dituzte:

- Ekainak 2: Foruen plaza
- Irailak 8: Los Tilos plaza
- Urriak 6: Lakuaren inguruko bizilagunak.
- Azaroak 3: Merkataritza etorbidea (Plaza Norte etorbidetik Bakearen plaza-Nelson Mandela arte)
- Abenduak 15: San Esteban
- Urtarrilak 12: Lur Gorri

Udaletxean izanen dira hitzordu horiek arratsaldeko zazpietan. Los Tilos plazako bizilagunena, hori bai, Los Sauces-Sahats ikastetxean izanen da.



Las actuaciones que se llevarán a cabo en los últimos meses también incluyen obras menores como la adecuación del carril bici, mejoras en la zona de las pistas de atletismo, instalación de baños públicos o las propuestas que se deriven del proceso participativo “Mejora tu plaza”. Tras las reuniones mantenidas ya con vecinos y vecinas de la plaza de los Castaños, plaza Río Arga y plaza de los Olmos, las próximas citas serán:

- 2 de junio: plaza los Fueros
- 8 de septiembre: plaza de los Tilos
- 6 de octubre: zona del lago
- 3 de noviembre: avenida Comercial (desde avenida Plaza Norte hasta la plaza de la Paz-Nelson Mandela)
- 15 de diciembre: San Esteban
- 12 de enero: Lur Gorri

Los encuentros tendrán lugar a las 7 de la tarde en el ayuntamiento, con excepción del programado con vecinos y vecinas de la plaza de los Tilos, que se desarrollará en el colegio Los Sauces-Sahats.



# "Parte hartzen duen eta bizitasuna duen gazteria nahi dut"

# "Quiero una juventud más viva y participativa"

## DAVID ARMENDÁRIZ NÚÑEZ, KIROL, JARDUERA FISIKOAREN ETA GAZTERIAREN ZINEGOTZIA

Erronka zaila baina ilusionagarria da David Armendariz Nuñezentzat lehen aldiz zinegotzi izatea I-E/Equo alderdiarekin. Bi sailetan ari da lanean bereziki: Gazteria eta Kirola-Jarduera fisikoa. Lan Harremanetan diplomatua da Armendariz, 30 urte ditu eta automobilgintza enpresa batean egiten du lan Arriskuak Ekiditeko Teknikari gisa.

> Gazteekin elkarlana eta parte hartzea sustatzeko bideak errazten ari gara

**Zein balorazio egiten duzu legealdiko lehen urteaz?**
Lan egin dugu erruz hilabeteotan. Egun batetik bestera ohikoa bilakatua zen eredu politiko eta sozialarekin haustea ez da erraza. Jendeak dagoeneko antzematen ditu aldaketa batzuk. Parte hartzea handitu da, informazio gehiago dago eta bizilagunek komunikazioa dute Udalarekin. Krisiak gogor kolpatu dituen bizilagunak laguntzeko proiektuak eramaten ari gara aurrera, elkartasunezko egitasmoak hain zuzen ere. Uste dut bide egokia hartu dugula eta benetako aldaketa sakona ezartzeko gutxienekoak ari garela finkatzen.
**Bi esparrutan ari zara lanean, zein lan ildo ari zara erabiltzen?**
Gazteria arloan, hasieratik antzeman dut gazteekin eurekin hitz egin beharra zegoela, eurak entzun. Horretarako parte hartzeko eta kolaboratzeko esparruak ari gara garatzen eta errazten gazteek dituzten proposamenak guganaino iritsi daitezen. Kirol arloan eta Jarduera fisikoetan garrantzia handiagoa eman nahi diogu herri mailako kirolari eta kalean egin daitezkeen horiek ere indartu nahi ditugu. Horiek izan ziren hain zuzen ere I. Kirol Foroan mahai gainean jarri ziren gaietako batzuk. Beste xedeetako bat da herrian dauden kirol instalazioak aprobetxatzea eta ekimen gehiago egin ahal izatea horietan. Udalaren eta Lagunak elkartearen arteko harremanak hobetzea ere oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu.
**Legealdia amaitzean zein erronka gauzatu ahal izatea nahi zenuke?**
Gazteria mobilizatzea eta bizitasuna duen gazte jendea izatea da lortu nahi dudana, batez ere, parte hartzaileagoa bilakatzea. Genero ikuspegia izanen duen gazteria, kontzientziaduna eta genero indarkeria gaitzetsiko duena. Gai horrekin lotuta, hain zuzen, Berdintasun saila eta Gazteriarena koordinatuta ari gara lanean. Kirol arloan eta Jarduera fisikoan, instalazio gehiago izatea nahiko nuke, batez ere, kalean kirola egiteko guneak. Herritarrek nahi dituzten iniziatiba berriak txertatzea eta aukerak zabaltzea. Oro har hitz eginda, herritarren parte hartzea sustatu eta errotzea nahiko nuke herrian.

## DAVID ARMENDÁRIZ NÚÑEZ, CONCEJAL DE DEPORTE, ACTIVIDAD FÍSICA Y JUVENTUD

En su primera legislatura como concejal, David Armendáriz (Izquierda-Ezkerra/Equo) asume un reto difícil pero a la vez ilusionante. Su labor municipal se centra en dos áreas, Juventud y Deporte-Actividad Física. Es Diplomado en Relaciones Laborales, tiene 30 años y trabaja como Técnico de Prevención de Riesgos Laborales en una empresa de automoción.

> Se están facilitando cauces de participación y colaboración con los y las jóvenes

**¿Cómo valoras este año de legislatura?**
Han sido meses de duro e intenso trabajo. Romper de un día para otro con el modelo existente a nivel político y social no es fácil. La gente ya percibe algunos cambios. Hay mucha más participación, más información y comunicación entre Ayuntamiento y vecinos y vecinas. Se están llevando a cabo proyectos de carácter solidario para mejorar la situación de las personas más castigadas por la crisis. Creo sinceramente que vamos por buen camino y que se están asentando las bases para conseguir un cambio real y profundo.
**¿Cuáles son las líneas principales en las dos áreas en las que desarrollas tu trabajo municipal?**
Respecto a Juventud, desde el principio se ha apostado por escuchar más a las y los jóvenes. Se están facilitando cauces de participación y colaboración con ellas y con ellos en todo lo que sea posible para escuchar sus propuestas. En Deporte y Actividad Física, queremos dar mayor importancia al deporte a nivel popular y posibilitar que se desarrollen más actividades al aire libre. De hecho, estos fueron los temas que se plantearon en el I Foro del Deporte realizado en marzo. Otro objetivo es aprovechar la estructura deportiva existente para poder llevar a cabo distintos eventos. También es muy importante mejorar la coordinación entre Ayuntamiento y Lagunak.
**¿Qué objetivos te gustaría lograr al final de esta legislatura?**
Tengo claro que quiero una juventud más viva y movilizada y, sobre todo, más participativa. Una juventud más concienciada con la perspectiva de género y la lacra de la violencia machista. En este sentido, hay que destacar el trabajo que se está haciendo coordinadamente entre Igualdad y Juventud. En Deporte y Actividad Física, disponer de más instalaciones, especialmente al aire libre, asentar iniciativas que puedan tener mucho seguimiento popular y ampliar el abanico de actividades que se puedan practicar en Barañáin.
A nivel general, también destacaría afianzar y asentar firmemente la participación ciudadana en el día a día de nuestro pueblo.